


# BERGARA

05

Udal Aldizkaria  
abendua 2005



BERGARAKO UDALA

[www.bergara.net](http://www.bergara.net)



Iradokizun orria  
barnean

*Incluye hoja de  
sugerencias*

Ale honek Arau  
Subsidiario berrien  
gehigarria du.

*Este número incorpo-  
ra un suplemento  
sobre las nuevas  
Normas Subsidiarias.*

05



## Nuevas Normas Subsidiarias

### Exposición pública de las nuevas Normas Urbanísticas en el salón de plenos del Ayuntamiento

Con el objetivo de que los bergarese conozcamos las nuevas propuestas urbanísticas que definirán el futuro de la villa, el salón de plenos del Ayuntamiento alberga una exposición con planos para que conozcamos todos los detalles de los cambios a realizar. Durante un plazo de dos meses se podrán presentar sugerencias al avance.

El siguiente paso será la adecuación, si es preciso, de las peticiones para darse la aprobación inicial, que también tendrá un periodo de alega-

ciones. Con las aportaciones que se realicen las Normas Subsidiarias se remitirán a la Diputación de Gipuzkoa para alcanzar la aprobación definitiva. Una vez superado el trámite será el documento que defina todos los usos posibles de los suelos de Bergara.



La exposición se puede visitar en el salón de plenos del Ayuntamiento de lunes a viernes de 11:00 a 13:00 h. y de 18:00 a 20:00 h. Los sábados de 11:00 a 13:00 h.

### Cómputo de nuevas viviendas previstas

VIVIENDAS	LIBRES	TASADAS	PROTEGIDAS	TOTAL
SUELO URBANO	862 (75,66%)	48 (4,22%)	229 (20,12%)	1.138
SUELO URBANIZABLE	32 (20%)	16 (10%)	112 (70%)	160
<b>TOTAL</b>	<b>893 (68,80%)</b>	<b>64 (4,93%)</b>	<b>341 (26,27%)</b>	<b>1.298</b>

### Cómputo de suelo para actividades económicas

VIVIENDAS	SUELO URBANO (Ocupado + libre)	SUELO URBANIZABLE (Propuesto)	TOTAL
P.T.P	134,43 Ha.	75,00 Ha.	209,43 Ha.
Avance N.N.S.S.	123,9815 Ha.	66,2725 Ha.	190,2540 Ha.

## Áreas que sufrirán mayor transformación



Zubieta



Tornillería Deba / Deba Torlojutegia



Movilla



Algodonera



Compañía de María / Mariaren Lagundia



Kukubaso



Larramendi



Zubiaurre



## Bergarako planeamenduko arau subsidiarioen errebisioaren abantzearen dokumentua



■ Victoriano Gallastegi

Herritar maiteak,

Urteko azken egunetan gaudela-eta aldizkari honen aurreko zenbakian agindu genizuna bete nahiko genuke, eta horretarako egokitzat jo dugu ale berri hau argitara ematea, azken aldi honetan sortu diren gai aipagarrien berri izan dezazuen, besteak beste guztiz garrantzitsua den Bergarako planeamenduko arau subsidiarioen errebisioaren abantzearen dokumentuarena. Jakingo duzunez, pasa den azaroaren 21ean Udaltzarrak planeamenduko errebisio horretarako irizpideak, helburuak eta soluzioak jendaurrean jartzea erabaki zuen. Onarpenaren ildotik, Udalak udalerriko biztanle guztientzako deialdi bat egitea ezinbesteko zela ikusi zuen, errebisioaren dokumentuaz interesatuta zeuden guztiak haren aurkezpenean egon zitezten. Aurkezpena, dokumentua idatzi zuenak berak egin zuen, azaroaren 29an, eta azpimarratzekoa da ekitaldian jende ugari egon zela. Era berean, dokumentua Udal Bulego Teknikoan aztertu ahal izango du jendeak, eta dokumentuko planorik garrantzitsuenak eta esanguratsuenak udaletxeko areto nagusian daude ikusgai.

Bergarako bizilagunek udalerrian hurrengo urteetan egingo den antolamendu orokorraren gaineko informazioa izan dezaten egiten ari garen ahaleginetako beste bat da aldizkari honetan zehatz-mehatz ematen den informazioa. Horrela, abantzearen dokumentua ezagutarazita, Udalak Bergarako bizilagunak bultzatu nahi ditu udalerririk hirigintza aldetik etorkizunean izango duen antolamenduan parte hartzera.

Bergarako udalerriri orain eskaintzen zaizkion etorkizunerako aukera berri hauen ondorioz 1.289 etxebizitza berri eraikiko dira bertan: horietatik 341 babes ofizialekoak izango dira eta beste 64 tasatuak (salmenta prezio hitzartutakoak). Gainera, 66 hektarea lur garatuko dira ekonomia jardueretarako edo industriarako. Logikoki, udal planeamenduaren errebisioaren abantzearen dokumentuan egun dauden azpiegiturak eta etorkizunean egin nahi direnak ager-tzen dira. Gainera, azaldu dizkizuedan xehetasun horiek guztiak aldizkari honetan agertzen zaizkizue garatuta, eta benetan saiatu gara informazio argia eta ulertzen erraza ematen.

Azkenik, gogoratu abantzearen dokumentu hau otsailaren 6a bitartean egongo dela jendearentzako ikusgai; beraz, tarte horretan nahi dituzuen iradokizun edo iritzirik eman ahal izango dituzue, bai eta beharrezkoa balitz, planeamenduko beste alternatiba batzuk proposatu ere.

Besterik gabe, eta aukera hau aprobetxatuz, gabon zoriontsuak eta urte berri osasuntsu eta itzaropentsua opa nahi dizkizuet, neure izenean eta udalbatza osoarenean.

Besterik gabe, laster hasiko den urte berrirako bakea eta poza opatuz, agur bero bat guztioi.

Zuen Alkatea.

## Documento de Avance de la revisión de las normas subsidiarias

■ Desde el Ayuntamiento pretendemos que mediante el conocimiento del documento de Avance, se active la participación de los vecinos-as de Bergara en la ordenación urbanística del Bergara de mañana.

■ Este nuevo horizonte que se abre para Bergara conllevará la construcción de 1.298 viviendas, de las 341 serán de VPO y 64 tasadas (precio de venta concertado), así como la posibilidad de desarrollar 66 hectáreas de suelo para actividades económicas o industrial.

■ Recordar que hasta el próximo 6 de febrero el documento de Avance de la revisión del planeamiento está sometido a exposición pública, por lo que podrás, en ese período de tiempo, formular sugerencias y, en su caso, otras alternativas de planeamiento.

■ Aprovecho la ocasión, para en nombre propio y en el de la Corporación deseamos unas felices fiestas de Navidad y un saludable e ilusionante Año Nuevo.

# [ A G E N D A ]

## ABENDUA

- Abenduak 24** 18:30 Olentzerok umeen kartak jasoko ditu, San Martin plazan.  
**Abenduaren 27tik 30era** Haurren gabonetako jolas parkea, Labegaraletako kiroldegian. Sarrera 3 €.  
**Abenduak 28** Nairobitarra kultur taldearen "Nairobitarra, milioi bat kilometro lur arras" ikus-entzunezkoa, Osintxu auzoko ludotekan, Kutxaren laguntzarekin.

## URTARRILA

- Urtarrilak 5** 17:30 Bizartzuri San Martin Agirre plazan.  
**Urtarrilak 5** 19:30 Errege kabalgata.  
**Urtarrilak 28** Organo erromantikoaren kontzertuen nazioarteko 7.zikloa: Silvio Celeghin Italiako organo jolea eta Alberto Frugoni tronpeta.

## ORGANO ERROMANTIKOAREN KONTZERTUEN NAZIOARTEKO 7.ZIKLOA

## OTSAILA

- Otsailak 4** Giulio Mercati Italiako organo jolea.  
**Otsailak 11** Jose Enrique Ayarra Jarne organo jolea.  
**Otsailak 18** Organo jolea eta koroa.

## OTSAILA

- Otsailak 24** 22:30 Bergarako Udal Musika Bandaren eta Bergarako Orkestra Sinfonikoaren KONTZERTUA Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrera: 5 €.  
**Otsailak 25** 16:30 Pirritx eta Porrotx pailazoan "MAITE ZAITUT" IKUSKIZUN BERRIA Bergarako Udal Pilotalekuan. Sarrera: 4€.  
**Otsailak 26** 18:00 Ane Monna, Oskola eta Karramarroi taldearen "Amama Pantxikaren altxor ezkutua" ANTZERKI MUSIKALA Udal Pilotalekuan. Sarrera: 2 €.  
**Otsailak 28** 19:30 Su danborrak, Deabru Beltzak taldearen perkusio eta su artifizialen bidezko KALEJIRA.

## MARTXOA

- Martxoak 31** 22:00 "Todos nacemos vascos" Glu-Glu antzerki konpainiaren antzezlan Bergarako Udal pilotalekuan.

## ERAKUSKETA

- Abenduaren 16tik 31ra** Kultura Etxean herriko artisten lanak izango dira ikusgai.

## LIBURUTEGIAREN ORDUTEGIA

- Udal liburutegia 2005eko abenduaren 26tik 2006ko urtarrilaren 9ra, goizez soilik izango da zabalik, 8:00etatik 13:30etara.

## URTARRILEAN IKASTARDAK KZ GUNEAN

- Astelehena 9tik, ostirala 20ra 09:00etatik 11:00etara  
Astelehena 9tik, ostirala 20ra 18:00etatik 20:00etara

- Astelehena 23tik, ostirala Otsailak 3ra 11:00tik 13:00etara  
Astelehena 23tik, ostirala Otsailak 3ra 16:00tik 18:00etara



# [ EGIN BEHARREKOAK ]



Calle Irala. Año: 1986.



Calle Irala. Año: 2005.

## Diferentes proyectos y obras

■ El Ayuntamiento va a renovar los columpios que se encuentran en mal estado.



■ Se ha adjudicado a "Cadem" el emaxen energético del nuevo complejo deportivo de Agorrosin.

■ Se va a soterrar la línea eléctrica en la calle Laudantz. La obra se ha adjudicado a "Ingeniería y Montajes S.A." en 10.530,75 euros.

■ Se va a asfaltar la calle Arruriaga conectando Artekale y Burdiñate mediante un paso. La obra se ha adjudicado a "Asfaltos

Urretxu S.A." por 7.412,86 euros.

■ El Ayuntamiento va a proceder a eliminar las barreras arquitectónicas de la calle Aranerreka.

■ Se han eliminado las barreras arquitectónicas cercanas al Juzgado.

■ Se va a construir un parking en la calle Martokua.



■ En la escuela San Martín de Aguirre se van a tapar los huecos de las fachadas y se va a arreglar la rampa que da entrada a la cocina.

## Artekale y Arruriaga abiertas al tráfico

Las céntricas calles Artekale y Arruriaga se han abierto al tráfico. Por ellas, sólo podrán circular vehículos inferiores a 3.500 kilos, excepto los que estén autorizados por el Ayuntamiento que son el urbano, los autobuses escolares, camiones de basuras, y aquellos que tengan que realizar operaciones de carga y descarga en el tramo de las dos calles.

La urbanización ha supuesto un desembolso de 847.521 euros.



## 2006 urte hasieran Gabiria Dorrea berritzeari ekingo diote

Gabiria Dorrea berritzeko lanak 2006. urte hasieran ekingo dira. Udalak eta Tavexek Gabiria berritzeko hitzarmena sinatu zuten eta ondorioz, Amenabar enpresa ari da Gabiria Dorrea berritzeko proiektua lantzen. Berritze lanek urtebete inguru iraungo dute.

Apirilean Udalak eta Tavexek sinatutako akordioaren arabera, administrazioak berritze lanen %50 ordainduko du eta beste erdia Tavex taldeak. Gabiria Dorrea nahiko hondatuta dago eta beraz, berritze lan sakona behar du. Aurrekontua, 1.500.000 euro ingurukoa da.

Hala ere, Udalak jarraituko du Gabiria Dorrearen jabe izaten. Dorrea, XV. mendekoa da, piztunde estilokoa, eta monumentu kalifikatu izendapena dauka.



## El Consistorio gestiona la compra del patio del Seminario



El Ayuntamiento gestiona la compra del patio del Real Seminario al Ministerio de Economía y Hacienda del Gobierno con el fin de construir un parking debajo del patio.

El Ayuntamiento y el Ministerio de Economía y Hacienda acordaron el precio del patio en 741.000 euros. Del total de la cantidad, el Ayuntamiento ha pagado 235.456 euros y el resto se acordó pagarlo mediante patrimonio. De esta manera, el Ayuntamiento cederá al Gobierno 24 de los futuros garajes que se construirán debajo del patio. Estos 24 garajes están valorados en 505.543 euros y serán garajes ubicados en la primera planta del parking.

## Udal lanpostuen deialdia

Udalak ondorengo lanpostuak betetzeko deialdia egiten ari da:

- Brigadako Ofizial Igeltseroa
- Mantenimenduko Ofiziala
- Mantenimenduko Pioia (2 opostu)
- Lorategiko Arduraduna
- Peoi Garbitzailea
- Lorategiko Ofiziala
- Erregistro Orokorreko Administrari Laguntzailea
- Idazkaritza Orokorreko Administrari laguntzailea
- Udaltzain Agentea
- Obra eta Zerbitzuetako Burua
- Liburutegiko Laguntzailea

## Rekalde Jauregiaren inguruak atontzen

Udala, Rekalde Jauregiaren ingurua atontzen ari da. Jauregia, zaharren goitza ondoan kokatua dago.

Rekalde Jauregiko parkera edonor sar daiteke eta ondorioz, Udalak zenbait eserleku jarri ditu herritarrendako. Jauregira heltzeko bidea, lorategia inguratzen duen pasealeku ederra, eta jauregiko lorategia bera konpondu egingo dira.

Bestalde, ur depositoa, lorategiko pare-tak... ere konpontzen ari da Udala.





# (IKUSTEKOAK)




01



02



03



05




04







06



07

**01**

Argiek Gabonak heldu direla abisatzen dizkigute.  
Las Luces nos avisan de que ha llegado la Navidad.

**02**

Eskaparate lehiaketarako erakusleihoak atondu dituzte komertzio askok.  
Muchos comercios han preparado sus escaparates para concursar.

**03**

Hauexek Kirol argazki lehiaketako argazki sarituak dira.  
Fotos premiadas en el Concurso de fotografía deportiva.

**04**

Olentzero herrira heldu da eta Udaletxeko sarreran aurkitu du bere txokoa.  
Olentzero ha llegado a Bergara. Está situado en la entrada al Ayuntamiento.

**05**

Tradizioari jarraituz, Jaiotza ere jarri da.  
Se ha montado el tradicional Belén en el Ayuntamiento.

**06**

Artekale eta Arruriaga kaleak ireki dira.  
Se han abierto al tráfico las calles Artekale y Arruriaga.

**07**

Kiroldegi berria San Martinetarako irekiko da.  
El nuevo polideportivo abrirá sus puertas para San Martines.

**08**

Arau subsidiarioak ikusgai daude Udaletxeko Pleno Aretoan astegunetan 11:00etatik 13:00etara eta 18:00etatik 20:00etara. Larunbatetan 11:00etatik 13:00etara.  
Las Normas Subsidiarias están expuestas al público en el Salón de Plenos del Ayuntamiento de lunes a viernes de 11:00 a 13:00 h y de 18:00 a 20:00 h. Los sábados de 11:00 a 13:00 h.

**09**

Gabonetako Jolas Parkean umeak jolasten.  
Los niños disfrutan de las vacaciones navideñas jugando en el Parque de Navidad.

**10**

Udaleko Euskara Batzordeak egindako 2006ko egutegia.  
Calendario del 2006 del Ayuntamiento.



08



09



10





# [ GIZA GIROKOAK ]

## Drogen inguruko gaietako Prebentziorako III. Toki-Egitasmoa (2005-2009)

PROGRAMA	PROIEKTUAK	EKINTZAK
FAMILIA-GUNEKO PREBENTZIOA	GURASO ESKOLA	10 saioko ikastaroak 2tik 18 urtera bitarteko seme-alabak dituzten gurasoentzako. Gehienez 6 talde adinen arabera banatuta. (88 guraso)
	AURRERA BEGIRA Gurasoentzako aldizkaria	urtean 4 ale, 1.400 gurasoei banatuta
	ESKOLARATZE PROZESUAN ADAPTAZIOA	2 urteko haurren gurasoentzako hitzaldi bat (25 pertsona)
ESKOLA-GUNEKO PREBENTZIOA	HAUR HEZKUNTZAN PREBENTZIOA	Proiektuetan aipatutako hezkuntzako mailak dituzten herriko eskola guztietan ikasleei zuzendutako ondoko programak landu dira: Discover, Lagunekin baratzean, Cineskola, Arriskua eta alkohola, Arriskua eta kannabisa eta Arriskua eta drogak  Irakasleei zuzendutako ikastaro bat "Escuela Vasco Navarra de Terapia Familiar"ekin eginda (25 irakasle)  3 proiektu hauek garatzeko dauden koordinazio guneak mantendu dira
	DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN ETA ONDORENGOAN PREBENTZIOA	
	LANBIDE HEZIKETAN PREBENTZIOA	
JAI-GUNEKO PREBENTZIOA	JAIGIROAN EGITEN DIREN DROGEN KONTSUMOEI LOTURIKO ARRISKUEN MURRIZKETA	Pentecoste eta San Martin jaietan testing programa, Gaztetxeekin, eta Ailaketekin. Guztira 254 lagunengana iritsi ziren. 100 informazio bila joan ziren Karpara, eta 53 pertsonen drogen analisi egin ziren
INGURUNE IREKIKO PREBENTZIOA	INGURUNE IREKIAN GIZARTE ETA HEZKUNTZA ESKU-HARTZEA	Irailtik aurrera 2 Kale Hezitzaile hasi dira lanean herriko 11 eta 17 urte bitarteko gaztetxeekin
DROGEN INGURUKO ARAZOEI AURRE EGITEKO ORIENTAZIOA ETA AHOLKULARITZA		- Arreta zuzena (9 kasu) - Kasuen jarraipena - Tratamendurako laguntza (2 kasu) - Bideratutako zerbitzuetaekin koordinazioa - Gizarteratzeko bidean laguntza (kasu bat)
TABAKOAREN KONTSUMOA GUTXITZEA	ERRETZEARI LAGATZEKO IKASTAROAK	Ikastaro bat egin da 14 partaideekin

Drogen inguruko gaietako Prebentziorako III. Toki-Egitasmoa (2005-2009) Gabonak eta gero web orrian izango da ikusgai: [www.bergara.net](http://www.bergara.net)

### SUBVENCIONES A ONGS 2005

Se han destinado 60.520,24 euros durante el 2005 a ONGs de la siguiente manera: el 90% para labores de Cooperación y el 10% para labores de Sensibilización.

■ Oscar Romero Solidatitza Batzordea:

Proyecto: Escuela saludable para niños de Tacuba. El Salvador.  
Subvención: 15.413,34 €.

■ Fisc Fundazioa:

Proyecto: Construcción de una escuela primaria en Kyondo-Monwu, Casando. R.D. Congo. Subvención: 15.413,34 €.

■ Komite Internazionalistak:

- Proyecto: Programa de alfabetización dirigido a la Colectiva de Mujeres de Masaya en Nicaragua. Subvención: 13.000 €.

- Proyecto: Sensibilización en el municipio de Bergara. Subvención: 1.000 €.

■ Felix Iñurrategi - Baltistan Fundazioa:

Proyecto: Continuación del proyecto de desarrollo agrícola en el pueblo de Matxulo. Pakistan. Subvención: 9.870,18 €.

■ Medicus Mundi Gipuzkoa:

Proyecto: Fortalecimiento de la coordinación comunitaria de las comunidades indígenas y campesinas de la Amazonía Ecuatoriana. Subvención: 5.823,38 €.

### Kale Heziketa

Ikasturte berriarekin batera Udalak Kale Heziketa programa jarri du martxan. Debagoienako lehen udalerrria da programa hau martxan jartzen duena.

Kale Hezitzaileen lana 11-17 urte bitarteko gazte eta nerabeei zuzendurik dago. Kalea izango da beraien lan gune garrantzitsuena eta esparru hau heziketa leku bihurtzen saiatuko dira.

Gazteekin egiten den lanaz gain, hauekin eskumena duten komunitateko zerbitzu eta baliabide desberdinekin lana egitea bilatzen da.

Kale Hezitzaileek beraien helburuak betetzeko xedearekin gazte eta nerabeentzat ekintza desberdinak antolatuko dituzte. Honela, azarozan lehenengo kale ekintza burutu zuten. Bertan, 11-17 urte bitarteko gazte eta nerabeek malabarak, abalorioak eta henna tatuaiak eta perkusio tailerrak egiteko aukera izan zuten. Esan, 50 gazte eta nerabeek parte hartu zutela.

Datorren urtera begira, ekintza gehiago antolatuko dituzte eta hurrengo 2006ko urtarrilean antolatzekotan dira.

Programa hau hurrengo hiru urtetan eramango da aurrera.

## Berriketan egitasmoa, euskara ikasleak erabiltzera animatzeko

Azkeneko bi urteetan herriko zenbait entitatek (Jardun, AEK, Udal Euskaltegia eta Udaleko Euskara Zerbitzua) euskalduntze-alfabeta-tzeko eskaria bultzatzeko zenbait kanpaina bideratu izan dituzte. Une honetan entitate horiek beste ekimen bat bideratu nahi dute, kasu honetan erabilera-ekin lotua: zehazki, euskara ikasleei edo euskaraz jarduteko zailtasuna dutenei euskaraz egiteko guneak eskaini nahi zaizkie.

Horretarako, beste herri batzuetan egin izan denaren ildotik, herritar horiekin euskaraz egingo luketen euskaldun boluntarioak topatu eta elkarrekin berba egiteko guneak sortu nahi dira. Egitasmoa aurkezteko mahai-inguru bat egingo da urtarrilaren 18an eta bertan antzeko proiektuetan diharduen beste herri batzuetako jendeak hartuko du parte. Udalak herritarrak, ikasleak, ikasleohiak edo euskara maila apalekoak eta baita euskaldunzaharrak ere gonbidatu nahi ditu egitasmoan parte hartzera.


### Esparru soziokulturalean euskara bultzatzeko egitasmoa 2006an

1991. urtean kultura, kirol, aisia, irakaskuntza, erlijio... esparruetako hainbat entitatek Euskararen Hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen hark zenbait urtetan iraun zuen eta berari esker esparru horietako euskararen erabilera nabarmen igo zen.

Gerora, ekimena jarraipenik barik egon da urte batzuetan eta Udalak Euskara Biziberritzeko Planaren barruan berriz bideratu nahi luke. Horretarako EMUN enpresaren zerbitzuak kontratatu ditu eta proiektua 2006ko lehenengo seihilabetekoan bideratu nahi litza-teke.

### Hainbat enpresak jarriko dituzte martxan euskara planak

Enpresetan euskara planak abian jartzeko egitasmoak oso harrera ona izan du. Lehendik euskara planetan diharduten bi enpresei (Geysler eta Soraluze enpresei) beste hiru gehituko zaizkie 2006an: Aceralia, Lazpiur eta TTT, azkeneko hau lehenago ere plana izandakoa.



Horretaz aparte, beste zenbait enpresak ere aurrerago euskara planak martxan jartzeko interesa azaldu dute.

## Varios temas sobre Medio Ambiente

■ **Agenda Local 21:** El foro de participación ciudadana tras culminar la etapa de diagnóstico está de lleno en la redacción de un plan de acciones que sirva de eje de actuación para los próximos años en relación al desarrollo sostenible. Bergara, al igual que el resto de municipios de la Mancomunidad, deberá tener listo el plan de acción de la Agenda Local 21 para el primer trimestre de 2006. Todos los municipios del Alto Deba están en el proceso que se está llevando a cabo para entrar a formar parte de la Red Vasca de municipios hacia la Sostenibilidad (Udalsarea 21).

■ **Agenda Local 21 Escolar:** Hoy es el día que 2 colegios públicos de Bergara han lanzado sus planes de Agenda Local 21 Escolar. El ayuntamiento está solicitando presupuestos para que consultorías externas puedan ofrecer apoyo a estos colegios en la consolidación de sus respectivas Agenda Local 21 Escolares. Todo esto se está realizando bajo la tutela del Ceida de Legazpia (Centro de Educación e Investigación Didáctico Ambiental).

■ **Plan Energético:** Con la ayuda del EVE (Ente Vasco de la Energía) se pretende realizar un estudio energético en ciertos edificios municipales y líneas de alumbrado público. Una vez recopilados los datos se están volcando éstos a unas plantillas para que el Eve los pueda analizar y proponer sus actuaciones.

■ **Cinturón verde:** Inmersos en las obligaciones que contrae el desarrollo de la Agenda Local 21 en el ayuntamiento, el departamento de medio ambiente acaba de adjudicar a Naturgintza la primera fase para la redacción de un proyecto de cinturón verde en el espacio periurbano de Bergara. Estaríamos hablando de la identificación y caracterización de zonas de interés natural y el análisis de la viabilidad del cinturón verde (1/3 del proyecto). De forma muy generalista, se pretende optimizar la conexión del sistema urbano con los recursos naturales del entorno, preservar los espacios naturales de especial interés patrimonial, restaurar y mejorar la biodiversidad, diversificar el paisaje y sensibilizar y formar al ciudadano en estos aspectos.



## Concurso de escaparates navideños organizado por Bedelkar y el Ayuntamiento

El Ayuntamiento de Bergara y la asociación Bedelkar han organizado un año más el concurso de escaparates.

### Bases

1. En el concurso serán tenidos en cuenta todos los establecimientos comerciales de Bergara, sin necesidad de inscribirse con antelación.
2. Las fechas de exhibición estarán comprendidas entre el 13 y 27 de diciembre de 2005, ambos inclusive.
3. Para la concesión de premios se tendrá en cuenta la imaginación, originalidad y efectividad del mensaje publicitario, así como la calidad del escaparate concursante.
4. En los escaparates deberán figurar artículos de venta habitual en el establecimiento.
5. Se ruega no utilizar acebo, musgo, brusco y abeto naturales en la decoración de escaparates.
6. El Jurado estará compuesto por las personas designadas por la Comisión de Grupos Culturales, Juventud y Festejos, la asociación de comerciantes de Bergara Bedelkar y Beart margo elkarte.
7. Los premios concedidos por el Ayuntamiento consistirán en una cantidad en metálico de 250 € y trofeo a 3 establecimientos comerciales de Bergara que hayan merecido esa distinción.
8. El fallo del Jurado será inapelable y se hará público el 21 de diciembre de 2005, a las 15:30 horas, en la rueda de prensa que se dará en la Casa de Cultura de Bergara.
9. El Jurado se reserva la posibilidad de declarar desiertos cuantos premios considere oportunos.
10. La participación en el concurso supone la aceptación de estas Bases.

Nota: Durante las fechas del concurso es deseable que los escaparates permanezcan iluminados hasta la hora del cierre los días laborables y hasta las nueve de la noche los días festivos y sus vísperas, para facilitar la labor del Jurado.

Para más información: Kultura Etxea. Tel.: 943 779 159. Bedelkar: Tel.: 943 760 468



## Turismo bulegoan 306 kontsulta izan dira Domu Santu eta abenduko zubien artean

Turismo bulegoak Domu Santuko zubian 105 kontsulta jaso zituen, 2004. urteko zubian baino 40 kontsulta gehiago. 105 kontsulta hauetatik, 17 bergarakoek eginak izan dira eta 88 kanpokoek eginak. 88 kontsulta hauetatik, Euskal Herrikoek 57 kontsulta egin dituzte, 31 egin dituztelarik Euskal Herri kanpokoek.

Abenduan, turismo bulegoa 2tik 11ra izan da zabalik. Bederatzi egun horietan, 201 kontsulta jaso dira. Hauetatik 32 bergarakoek egindako kontsultak dira, 109 Euskal Herrikoek eginikoak eta 60 kontsulta Estatuko biztanleek eginikoak izan dira.

2004ko abenduko zubian, 322 kontsulta izan zituen turismo bulegoak. Beherakada hau, beherakada orokorra izan da Gipuzkoako beste herriek ere pairatu baitute, tartean Donostia hiriburua. Fenomeno hau aztertzerakoan, arrazoi ugari daudela antzeman daiteke. Alde batetik, egun arraroak izan dira zubiak egiteko aukera anitz zeudelako. Bikote eta lagun koadrila askok egun desberdinetan izan dute jai. Eskola askotako ikasleek ere ez dute jai egunik izan. Bestalde, eguraldi txarrak turista asko desmotibatu ditu, eta beste asko eskiatzera joateko aprobetxatu dituzte opor hauek.

## Kirol Argazki Lehiaketako irabazleen obrak

### Zuri-beltzean

- Lehen saria: "El músculo". Julián Redondo. Bilbo
- Bigarren saria: "100 M. libras". Javier P. Fdez. Ferreras. Berango
- Hirugarren saria: "Uretara". Iñaki Caperochipi. Zarautz.
- Herriko saria: "Unai". Agustin Gurruchaga.



### Koloretan

- Lehen saria: "A 30 metros". Javier P. Fdez. Ferreras. Berango.
- Bigarren saria: "Irteera". Iosu Altzelai. Legazpi.
- Hirugarren saria: "Marathon". Iñaki Barace. Donostia.
- Herriko saria: "PESCA". Juanjo López Azurmendi. Bergara.



## Gabonetako Jolas Parkea

Gabonetako Jolas Parkea Labegarietako Kiroldegian izango da abenduaren 27, 28, 29 eta 30ean, arratsaldeko 16:00etatik 19:30etara. Kontutan izan behar da umeentzako jolas parkea dela, gurasoak ezin direla sartu. Beraz, 5 urtetik beherakoentzat txoko berezi bat dago (haurrak autonomoa izan behar du, begiraleekin bakarrik gelditzeko gai).



Abenduaren 27tik 29ra, tailerrak, tirolina, puentong-a, zubi malaioa, ohe plastikoak, puzgarriak etabar izango ditugu dira kiroldegian baita ere. Abenduaren 30ean, arratsaldeko 4etan, jolas kooperatiboen gunea, jolas tradizionalen gunea eta munduko jolasen gunea izango da. Gero, 18:00etan, euskarakea. Egun honetan, ez da aurreko egunetako ekintzarik egongo.

Eguneko sarrerak 3 euro balio ditu eta kirol oinatekoak eramatea gomendatzen da.



## Neguko gida kaleratu dute Debagoieneko Udal Liburutegiek urte tarte bakoitzari dagokion liburu gomendagarriekin

Debagoieneko Udal Liburutegiek Neguko gida kaleratu dute. Bertan, urte tarte bakoitzari dagozkion liburuak gomendatzen dituzte. Gida hau, ikastetxeetan banatuko zaie ikasleei.

Gidan, haurtxoentzako liburuak gomendatzen dira lehenik. Gero, 6 urtetik aurrerako umeentzako liburuak aurkitu daitezke, eta ondoren, 9 urtetik aurrerakoentzako argitalpenak. Gazteentzako liburuak ere aholkutzen dira, eta nola ez, helduentzakoak ere. Bestalde, ikusentzunezkoak ere gomendatzen dira Neguko gida honetan, hala nola diskoak eta DVDak.

Ondorengo web orrian ere aurkitu daiteke: [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua)



## KIROL KLUB ETA ENTITATEENDAKO DIRULAGUNTZAK

Dirulaguntza motak

Hiru dirulaguntza mota bereizten dira.

Bergarako kirol klub eta entitateei dirulaguntzak emateko araudiak:

A.1. Oinarrizko kirolean edota federatuan kirol jarduerak burutzeagatik, kirol klub edota entitateendako dirulaguntza.

A.2. Goi mailako kirola praktikatzegatik kirol klub edota entitateendako dirulaguntza.

B. Izaera puntualeko kirol jarduerak antolatzeagatik kirol klub edota entitate eta gizabanakoendako dirulaguntza.

2005eko bigarren ordainketa jasotzeko

Kirol klub edo entitateek 2005eko dirulaguntzen bigarren ordainketa jasotzeko, abenduaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dituzte agiriak Udaleko Kirol Zerbitzuan.

2006rako dirulaguntzen eskaera

Datorren urterako, 2006rako, dirulaguntzak eskatzeko, abenduaren 31 baino lehen aurkeztu beharko dira agiriak Udaleko Kirol Zerbitzuan.

Informazio gehiagorako, Udaleko Kirol Zerbitzura jo dezakezue edota telefono honetara deitu: 943 77 91 67



# [ DEBAGOIENEKOAK ]

Euskarazko produktuen katalogoa 05-06 argitaratu dute Gipuzkoako zenbait Udalek Aldundiaren laguntzarekin

Euskarazko produktuen katalogoa 05-06 argitaratu du Bergarako Udalak Gipuzkoako beste Udal batzuekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean.


Jostailu, musika, informatika, liburu, aldizkari, bideo eta aisiarako beste hainbat produkturen merkatu zabalean, euskarazkoak nabarmentzeko ahalegina da katalogo hau. Izan ere, gero eta gehiago dira aisialdia, ikasketak edo bizitza euskaraz egin nahi dutenak eta euskarazko eskaintzak bilatu eta bilatzen dituztenak.

Katalogo hau, lehen aldiz Euskal Herri osora zabaldu da, eta guztira 220.000 ale argitaratu eta banatu dira.

Katalogo honen bitartez, euskaraz jolasten, ikasten, hezitzen edo gozaten lagunduko dizuten produktu horien berri eman nahi da. Merkatuko alerik interesgarrienak eta berrienak erakusten ahalegintzen da katalogoa, baita horien gaineko informazio zehatza ematen ere: egilea, prezioa, ezaugarriak...

Katalogoa sailka banatzen da; hala nola, musika, filmak, aldizkariak, liburuak, informatika eta jostailu eta jokoak. Eta hauek, adinaren arabera sailkatzen dira gero, adin tarte bakoitzaren gustu eta beharretara egokitzeko.

Katalogoa [www.katalogoa.org](http://www.katalogoa.org) webgunean aurkitu dezakezue ere.



## Neguko errepide zaintzarako gatz biltegi berria Elorregin

Eguraldi txarra dela eta, neguko bide zaintzako neurriak indarrean daude dagoeneko. Foru aldundiak baliabide gehiago ipini ditu, besteak beste, Debagoienerako.

Aldundiak GI-632 eta GI-627 errepideak bereziki zainduko ditu. Horretarako, Elorregin ipini dute Gipuzkoa mendebaldeko gatz-biltegi handiena (850 tn). Ibarrean, beste bi biltegi daude Arlabanen eta Bergaran, 100 tonakoak. Horrez gain, Gipuzkoa mendebaldeko 16 kamioi dago -iaz, 12-, eta bi biltegi gehiago. 53 langilek zainduko dituzte bideak.



## Agilizan las expropiaciones para conectar los embalses de Urkulu y Aixola

El departamento vasco de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio del Gobierno Vasco ha declarado urgente e inaplazable la ocupación por la Diputación Foral, a efectos de expropiación forzosa, de los bienes y derechos afectados por el proyecto de trazado para la conexión de los embalses de Urkulu y Aixola.

Este proyecto se contempla dentro del Plan Foral contra la Sequía, basado en la conexión de embalses, de forma que se pueda trasvasar agua de uno a otro, en función de las necesidades.

Aixola, abastece a Eibar y tiene una capacidad de 2,7 millones de metros cúbicos. De la presa de Urkulu se nutren Eskoriatza, Aretxabaleta, Arrasate, Oñati, Bergara, Elgeta, Soraluze y Antzuola -65.796 habitantes-.

Las obras, que supondrán una inversión de 9 millones de euros, pretenden garantizar en todo momento el abastecimiento de Eibar. Los trabajos previstos supondrán la continuación de la red de abastecimiento que llega a Soraluze desde el embalse de Urkulu para, a través del túnel de Irigorri de 1.570 metros de longitud, alcanzar mediante las oportunas casetas de derivación los depósitos de Irigorri, Ipurua y Tutulukua.

## Acuerdos más importantes adoptados por el Pleno

### Abenduaren 19ko bilkura

- Ubera auzoan Arau Subsidiarioak aldatzen dituen dokumentuari hasierako onarpena eman eta hilabete batez jendeaurrean jartzea.

- Jardun euskara elkarteari baimena ematea Arizuriaga jauregian erabiltzeko doan lagatako lokal batzuen erabilera AEKrekin konpartitzeko.

### Azaroaren 28ko bilkura

- Behe oineko lokalen erabilpena tertziariorik etxebizitzara aldatzeko Ordenantza aldatzea.

- Udaletxea eta Olaso Dorrearen artean dagoen plazari "Telesforo Monzon plaza" izena jartzea.

- Ezinduentzako Etxeko Laguntza Zerbitzuaren eskuordetza eta kudeaketa Foru Aldundiak Udalaren esku uztea onartzea.

- "Pobreziaren kontrako adierazpena" onartzea.

### Azaroaren 7ko bilkura

- Errege Seminarioko 4.822 m<sup>2</sup>ko patioa 741.000 eurotan erostea.

### Urriaren 24ko bilkura

- Basalgon bi partzela erostea 12.000 eurotan.

- 2006ko ordenantza fiskalak onartzea.

- Igerilekuko obren II. fasea burutzeko "Bergarako Bihargitza 98, S.A." enpresak egindako kapital-zabalkuntzan parte hartzea, akzioak hartuta.

- Udal Planeamenduko 16-2 exekuzio unitatean (Urteaga inguruan) lurrrak trukatea "Madura Etxegintza, S.L." enpresarekin.

- San Martin Agirre eskolan eta kiroldegian panel fotoboltaikoak jarri eta kiroldegia eta Mizpirualde Egoitza energia termikoarekin hornitzeko hitzarmenak EEerekin sinatzea.

- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaien Sailarekin "Bizigune2 programa Bergran garatzeko sinatuko liziatekeen hitzarmena onartzea.

- Azaroaren 25a emakumearen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguna izendatu dela eta, Emakundek bidalitako adierazpen instituzionalari atxikimendua azaltzea.

### Urriaren 10eko bilkura

- Matxiategi 3tik 7ra bitartean oztopo arkitektonikoak kentzeko lanen proposamen teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 29.167,04 eurokoa da.

- Ibarra kaleko asfaltatze lanak 14.530,75 eurotan adjudikatzea.

- Zubiaurre 2-1.a eta baratza erostea 189.318,81 eurotan.

### Irailaren 26ko bilkura

- Elosuko kantinaren fatxadak konpontzeko lanak 10.808,19 eurotan adjudikatzea.

- Murinondoko goialdeko baserrietara ura eramateko ur-bonbak eta hoditeria berria jartzeko proposamen teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 79.105,05 eurokoa da.

- Etxerat-ek Antxon Sasiainen estradizioaren inguruan aurkeztutako mozioa onartzea.

### Irailaren 12ko bilkura

- Zubiaurre 2ko 2. eta 3. etxebizitzak erostea 264.445,32 eurotan.

- Goenkalea eta Kantoiak urbanizatzeko proiektu teknikoa eta baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 453.115,99 eurokoa da.

- Hirigune historikoko eraikin aipagarrienetan eta kaleetan argiteria publiko berria jartzeko baldintzen plegua onartzea. Lizitazio oinarria 450.609,22€.

- 2005/2006 ikasturtean herriko ikastetxei dirulaguntza emateko hitzarmenak onartzea.

### Pleno del 19 de diciembre

- Aprobar inicialmente el documento para la revisión de las Normas Subsidiarias en Ubera y someterlo a información pública durante un mes.

- Autorizar a la asociación de euskera Jardun el compartir con AEK el uso de unos locales cedidos en el palacio de Arizuriaga.

### Pleno del 28 de noviembre

- Modificar la ordenanza reguladora de las actuaciones de modificación de uso de terciario a residencial en los locales de planta baja.

- Nominar a la plaza sita entre la Casa Consistorial y Torre Olaso, "Telesforo Monzon plaza".

- Aceptar la delegación y encomienda de gestión del Servicio de Ayuda a Domicilio para personas dependientes efectuada por la Diputación Foral a favor del Ayuntamiento.

- Aprobar el "Manifiesto contra la Pobreza".

### Pleno del 7 de noviembre

- Compra del patio del Seminario (4.822 m<sup>2</sup>) por 741.000 euros.

### Pleno del 24 de octubre

- Compra de dos parcelas en Basalgo por 12.000 euros.

- Aprobar las ordenanzas fiscales para el 2006.

- Tomar parte en la ampliación de capital efectuada por "Bergarako Bihargitza 98, S.A." para la ejecución de las obras de las piscinas (fase II) y suscribir la totalidad de las nuevas acciones.

- Permutar terreno con "Madura Etxegintza S.L." en la unidad de ejecución 16-2 del planeamiento (zona de Urteaga).

- Aprobar los convenios a firmar con el EVE para la instalación de paneles fotovoltaicos en la escuela San Martín de Agirre y en el polideportivo, así como para el suministro de energía térmica al polideportivo y a la residencia Mizpirualde.

- Adherirse al manifiesto remitido por Emakunde con motivo de la celebración el 25 de noviembre del día internacional contra la violencia sobre las mujeres.

### Pleno del 10 de octubre

- Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para suprimir barreras arquitectónicas entre Matxiategi 3 y 7. El tipo de licitación es de 29.167,04 euros.

- Adjudicar el asfaltado de la calle Ibarra en 14.530,75 euros.

- Compra de la vivienda de Zubiaurre 2-1º y de la huerta en 189.318,81 €.

### Pleno del 26 de septiembre

- Adjudicar el arreglo de las fachadas de la cantina de Elosua en 10.808,19 euros.

- Aprobar la propuesta técnica y el pliego de condiciones para instalar un grupo sobrepresor y efectuar una nueva conducción de agua a las viviendas de la zona alta de Murinondo. El tipo de licitación es de 79.105,05 euros.

- Aprobar la moción presentada por Etxerat en torno a la extradición de Antxon Sasiain.

### Pleno del 12 de septiembre

- Comprar las viviendas de Zubiaurre 2-2º y 3º por 264.445,32 euros.

- Aprobar el proyecto y el pliego de condiciones para urbanizar Goenkalea y los Cantones. El tipo de licitación es 453.115,99 euros.

- Aprobar el pliego de condiciones para el alumbrado de edificios significativos y calles del casco histórico. El tipo de licitación es de 450.609,22 €.

- Aprobar los convenios para el otorgamiento de ayudas económicas a las escuelas del municipio en el curso 2005/2006.

Udal zerbitzuen  
telefono eta faxak

Ayuntamiento:

San Martín de Agirre plaza, 1  
20570 Bergara (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 77 91 00  
Fax: 943 77 91 63  
E-mail: bergara@bergara.net

ALKATEZTA	tel: 943 77 91 01 fax: 943 77 91 63
ARTXIBOA	tel: 943 77 91 32 fax: 943 77 91 63
LIBURUTEGIA- KULTURA ETXEA	tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69
ANGIOZARKO LIBURUTEGIA	tel: 943 76 16 19
OSINTXUKO LIBURUTEGIA	tel: 943 76 23 76
GIZARTE ONGIZATEA	tel: 943 77 91 65 fax: 943 77 91 63
HILERRIA	tel: 943 76 27 81 fax: 943 77 91 63
ENPRESA-BATZORDEA	tel: 943 77 91 73 fax: 943 77 91 63
KULTURA	tel: 943 77 91 58 fax: 943 77 91 57
KIROLAK	tel: 943 77 91 67 fax: 943 77 91 63
EUSKARA	tel: 943 77 91 66 fax: 943 77 91 63
INFORMATIKA	tel: 943 77 91 37 fax: 943 77 91 63
KONTUHARTZAILEZTA	tel: 943 77 91 64 fax: 943 77 91 63
OBRA ETA ZERBITZUAK- UDAL BILTEGIA	tel: 943 77 91 52 fax: 943 77 91 20
ONDARE ARTISTIKOA	tel: 943 77 91 62 fax: 943 77 91 69
UDALZAINGOA	tel: 943 77 91 06 fax: 943 77 91 63
KIROLDEGIA	tel: 943 76 56 41 fax: 943 77 91 63
IGERILEKUAK	tel: 943 76 20 51 fax: 943 77 91 63
IDAZKARITZA	tel: 943 77 91 00 fax: 943 77 91 63
HIRIGINTZA ETA INGURUGIROA	tel: 943 77 91 68 fax: 943 77 91 56

## Basalgo

### Auzoaren kokapena, historia eta monumentuak

Elgetarako bidean, San Juanera heldu baino lehen errepedean eskumatara hartuta, Bergarako herri erditik pare bat kilometrora dago Basalgo auzoa, ikuspegi ederra duen gaintxo batean.

Bide ertzean, herrixkara heldu aurretik dagoen gaintxoan, sasoi baten abadetxea izan zenaren ondo-ondoan dugu eliza, orain dela gutxi egindako pilotalekuaren ondoan.



Santiago Apostoluaren omenez jasotako eliza da, eta santu horren izenez ere eza-gutzen da Basalgo.

Auzoko bizilagunek auzolanean egin dituzte betidanik auzoko eraikuntza eta konpontze-lan guzti-guztiak. Bergara eta inguruko base-riak lotzen dituen bidea, gaur

egun konponduta dagoena, ere Basalgoko auzokideek egindakoa da.

1832an ermita hura Parrokia bihurtzea erabaki zuten, Santa Marina urruti gelditzen zitzaizela eta. Eliza ondoan, abadetxea izango zena jaso zuten.

Oñatiko konteak eman zien korua eta sabaia egiteko pinu egurra. Auzokide bakoitzak 10 anega gari eta 8 anega artoz ordaindu behar zien obraren gidatzaileei, eta zenbait lur-sail hipotekatu behar izan zituzten horretarako. 1851rarte ez zituzten zor guztiak ordaindu.

Eliza, Elkartea eta oraindik orain udaletxeak jaso duen pilotalekua dira, mendi eta sail desberdinetan sakabana-tuta dauden auzokideak elkartzeko lekua.



Monumentuak Santiago Apostoluaren eliza XV-XVI. mendean eraikitakoa da. XIX. mendean handitu egin zuten, eta alboan abadetxea erantsi zitzaionez, arkupetik zeukan sarrera ere aldatu beharra izan zen.

Egun zurituta dago, eta zaindutako baserri baten antza dauka. Erdi-puntuko bi arkuz osatutako harrizko kanpandorretxo da eliza dagoela adierazten digun ezaugarri bakarra. Aldare Nagusian barroko tankerako erretaula apaindua, gotiko erako Santiagoren irudia buru delarik. Irudi honetan erromes itxura dauka Santiagok, kapela eta bideko makila eta espresio eta keinu garratza baitauka.

Basalgon aipatzekoa da ere Gallastegitarren dorretxea, XV. mendean izen handiko maiorzakoa. Maria Gallastegi, dorretxeko alaba Garci Ibañez Ozaetarekin ezkondu zen eta Gallastegitarren baserria euren ondorengo baten eskuetara pasatu zenean Bergarako Ozaetarren jabetzakoa izatera pasatu zen.